



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2008ko ekainaren 26ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.

EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and. (9. gailan bertaratu da)

EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.

EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ and.

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.

EAJ-PNV.-D. JON PELI LAZKANO ALZAGA

EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.

EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.

PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.

PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.

PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.

PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.

PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.

PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.

PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.

PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.

PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.

EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.

EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EUSKARA ITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE and.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko ekainaren hogeita seiko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- KREDITUAK ALDARAZTEKO 1/2008 ESPEDIENTEA, DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOAREN PENTZURA. Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko ekainaren 3ko 285. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko maiatzaren 27an hartu zuen 95. irizpenak honakoa dio:

Udalaren osoko bilkuraren 2008ko maiatzaren 19ko erabakiaren bidez, udal sozietate publikoa eratzea erabaki zen, Pinosolon kiroldegia eraiki eta ondoren ustiatzeko eta estatutuen proiektua egiteko, bertan adierazi bezala.



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Espedientean dagoen txosten juridikoan adierazi bezala, sozietatearen gutxieneko kapitala 60.101,21 ¤-koa da. Hori guztia tituluen edo konturako oharren bidez ager daitezkeen akzioetan banatzen da.

Leioako Udalak % 100eko partaidetza dauka, sozietatearen bazkide bakarra den aldetik. Horregatik, kredituak aldarazteko espedientea bideratu behar da, 2007ko konprometitu gabeko gerakinetik aipatutako merkataritza sozietatea eratzeko behar den 60.101,21 ¤-ko zenbatekoa transferitzeko.

Udal kontu-hartzaileak txostena aurkeztu du, honako xehetasun hauek dituen kredituak aldarazteko espedientea proposatuta:

KREDITU ALDARAZPEN MOTA	KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA	EUROAK	KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK	EUROAK
Diruzaintzako gerakin likidoaren pentzurako kreditu-gehigarria	870/01 diruzaintza-gerakina	60.101,21 ¤	0080/55990/852.0100 Pinosolo Kiroldegia, tituluen eskuratzea	60.101,21 ¤
GUZTIRA		60.101,21 €		60.101,21 €

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaio kredituak aldarazteko 1/2008 espedienteari, Diruzaintzako gerakin likidoaren pentzura.
2. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 150. eta 158.2 artikuluetan eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzazko Errege Dekretuaren 172. eta 182. artikuluen artekoan ezarritakoa aintzat hartuta.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** 1/2008 kreditu-aldaketa onetsiko dela, diruzaintzako gerakin likidoaren pentzura, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

2.- PLAN OROKORRAREN ZATI BATEN ALDAKETA, 39. SEKTOREAN (SALTUENA), HASIERAN ONESTEA. Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko ekainaren 10eko 290. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko ekainaren 3an hartu zuen 103. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoen bidez, 39. sektorea (Saltuena) garatzea ahalbidetzen duten hainbat hirigintza aurrekariren berri eman da, hori hirugarren erabilerako arlo bihurtzeko ondoretarako:

- **2004ko urtarrilaren 29a:** 135/2004 Foru Aginduaren bidez, sektoreko lurzoru urbanizagarria antolatzen zuen Hirigintza Jarduketako Programa behin betiko onetsi da.
- **2005eko otsailaren 9a:** 179/2005 Foru Aginduaren bidez, antolamendu zehatza biltzen duen eta kudeaketa-prozedurak hasteko aukera ematen duen Plan Partziala behin betiko onetsi da.

Urbanizazio-proiektua idazten zen bitartean eta Herri Lanen Foru Sailak horretara sartzeko balio duen tronpeta trazadurari jarritako eskakizunen ondorioz, hasieran aurreikusitako azelerazio-erreiaren eta dezelerazio-erreiaren luzera luzatu behar izan da. Horrek sektorearen silueta aldatzea dakar, Foru Sailak ezarritako trazadura lortzeko behar den lurzorua gehituta.

Aurretik esandakoaren ondorioz, Plan Orokorraren 39. sektoreari buruzko aldaketa bideratu behar da. Horren helburua, Bizkaiko Foru Aldundiaren irizpideen arabera, sarbideetako adarrak garatzeko behar den lurzorua urbanizagarritzat jotzea da.

2008ko maiatzaren 26an bidalitako idazkiaren bidez (sarrera-erregistroko zk.: 4.119), Eurocis Inmuebles 10, S.L. merkataritza-etxeak Plangintza Orokorra aldatzeko espediente hori bideratu ahal izateko behar den dokumentazio teknikoa aurkeztu du. Espediente nagusiak Erandio eta Leioa udal mugarteetako lurrei eragiten dien bezala, Erandioko lurrei dagokienez, bere Udalaren osoko bilkurak espedientea onetsi beharko du.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako tramiteak egitea komeni dela iritzi du:

- Leioako HAPOn aldaketa zehatza, 39. sektoreari (Saltuena) buruzkoa, hasieran onetsiko da. Horren bidez, sektorearen azalera birdimentsionatu behar da, Herri Lanen Foru Sailak ezarritako ibilgailuetarako sarbideen trazadura eraikitzeak aukera emateko behar diren lurzoruak gehitzeko.
- Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikuluan xedatutakoa betetzeko, herritarrei postontzietan uzten zaien udal aldizkarian espedientearen edukiaren laburpena argitaratuko da, alegazioak aurkezteko epeak irauten duen bitartean.
- Horri buruzko iragarkia argitaratuko da BAOn eta egunkarietan, jendaurrean hilabetez azaltzeko izapidea betetzeko ondoretarako, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5 artikuluan adierazitakoaren arabera.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta Osoko Bilkuraren hurrengo bilerako gai zerrendan sartuko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** 39 sektorean (Saltuena) Plan Orokorraren aldaketa zehatza hasieran onestea, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

3.- MENDIBILE PARKEAN MAHATSONDO-HOSTOAREN IRUDIA EZARTZEKO URTE

ANITZEKO GASTUA: Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko ekainaren 17ko 304. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko ekainaren 10ean hartu zuen 108. irizpenak honakoa dio:

2008ko maiatzaren 19an, Hirigintza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman zion Mendibile Jauregiaren inguruan mahatsondo-hostoaren irudidun eskultura-elementua ezartzeari, bertan baitago Txakoli de Bizkaia-Bizkaiko Txakolina jatorrizko deituraren Kontseilu Arautzailearen egoitza.

Proposamen horren helburua paisaia eta herritarrak eta, bereziki, txakolingintza omentzea da, giza balioak goraiatzeko dituen eta lekua goratzeko gai den eskultura-elementu adierazgarri bat instalatuz haren memoria babestuta. Horrez gain, komunitateari bere burua aitortzeko beste elementu sinboliko bat emango zaio.

Obra hornitu eta parkean instalatzeko aurkeztu den aurrekontua 139.313,68 eurokoa da (obra zibilik gabe).

Udal kontu-hartzaileak proiektu hori finantzatzeko konpromiso kreditua edo urte anitzeko gastua onestea proposatu du.

Zenbatekoaren banaketa honi erantsitako finantzaketa koadroan zehaztu bezala egingo da, beti Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 22. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.n) artikulua konpromiso kreditu edo urte anitzeko gastuetarako eskatzen dituzten betekizun guztiak zorrotz betetzen badira.

PARTIDA	IMPORTE
2008: 00800/55990/629.01.00 "EHU Artea kalean"	69.656,84
2009: 00800/55990/629.01.00 "EHU Artea kalean"	69.656,84
Guztira	139.313,68

Udalaren osoko bilkurak onetsi beharko du urte anitzeko gastu hori, bera delako konpromiso kreditu berriak –adibidez, hau- onesteko organo eskuduna, 2008ko ekitaldi honetarako Udal Aurrekontuarekin batera onetsi zen Konpromiso Kredituen Eranskinean eskultura horren instalazioa aurreikusita ez baitzegoen.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. Aldeko irizpena emango zaio urte anitzeko gastua onesteari.
2. Berau onesteari buruzko espedientea Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 150. eta 158.2 artikuluetan eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzazko Errege Dekretuaren 172. eta 182. artikuluen artekoan ezarritakoa aintzat hartuta.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipaturako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Mendibile parkean mahatsondo-hostoaren irudia ezartzeko urte anitzeko gastua onestea, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

4.- UDALERRIAN SORTU ETA ALDUNDIARI EMANDAKO HONDAKIN SOLIDOAK (HS) TRATATZEKO ZERBITZURAKO, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA LEIOAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN PROFORMA:

Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko ekainaren 25eko 315. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko ekainaren 17an hartu zuen 115. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeak 2008ko ekainaren 3an egindako bileran hartu zuen 108. irizpenaren bidez, udalerrian sortutako hiri hondakinak tratatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Leioako Udalaren artean hitzartutako hitzarmenaren zirriborroa irakurri da. Aipaturako dokumentua indarrean sartu bezain laster, 1999ko maiatzaren 10ean Leioako Udalaren eta Garbiker foru sozietate publikoaren artean egindako hitzarmenaren edukia indargabetuko da.

Irizpen horrek honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Dokumentuaren kopia bana emango zaie bertaratu diren zinegotziei.
- Gaia mahai gainean utziko da, hurrengo bilera batean eztabaidatzeko asmoz.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak iritzi du, elkarri iritziak luze azaldu ondoren, komeni dela Udalaren osoko bilkuraren erabaki baten bidez alkate-udalburu jauna ahalduntzea, udalerrian sortu eta Aldundiari emandako hiri hondakinak (HS) tratatzeko zerbitzurako, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Leioako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena egiteko.



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Irizpen horrek EB/Berdeak taldeko ordezkariaren aurkako botoa jaso du, errausketa-sistema erabiltzearen aurka baitago.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

EZTABAIDA:

PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak esandakoaren laburpena:

Oposizioak beti udal gobernu gaiztoa delako kexuak agertzen eta adierazten dituela esan ez dadin, kasu honetan oso pozik gaude, esku artean bidezkoa den hitzarmena baitugu. Alde guztien eskubideak ondo azalduta daude eta, gainera, gogobetetzen nau bertan eta Batzar Nagusietan hainbeste hitz egin ostean, Foru Aldundiko arduradunek sinatzen ari diren hitzarmenak hobe zitezkeela ondorioztatu izanak eta, horrela, aurretik beste hitzarmen bat sinatu zuten Udal eta Mankomunitateekin era honetako hitzarmenak aldatzea lortu zen

Orain arte indarrean egon den hitzarmena, gure ustez, hitzarmen leoninoa izan da, baina adjektiborik ez dugu erabiliko hitzarmena deskribatzeko, irakurtzen duenak erabaki dezala zein den adjektiborik egokiena eta, jakina, hitzarmen berriak egoera hobetu egiten du, horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu Foru Aldundiari Udalak eta Mankomunitateak proposamenagatik. Espero dugu hainbeste kexu agerrarazi zuten hitzarmen mota horietara berriro ez bueltatzea.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Ni hezkuntza-alorretik nator eta, zintzoa izaten ari zarenez, zeure jarrera balioesten dut. Halaber, uste dut gai hau Leioako aspaldidaniko eztabaida dela eta, nire iritziz, momentu honetan bertan itxi beharko genuke eztabaida hori, etorkizunerako hobekuntzak lortzen saiatu nahi izatekotan.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Hitz egin nahi dut zeren eta, nork bere odolari ohore, eta Arturo Aldecoa urte askotan zehar mintzatu baita gai honetaz udal osoko bilkuran. Azkenean, honek erakusten du, batetik, arian-arian noizbait bukatzen dela eta, bestetik, Eusko Jeltzaleak ez garela motelak ezta jarrera itxikoak ere eta, konbentzitzen gaituztenean, irizpidea aldatzen dugula; hori guztia honek erakusten du.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Aldeko hamazortzi boto, bozketan bertan egon diren EAJ-PNVko bederatzi ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzienak, PPko hiru zinegotzienak; kontrako bi boto, EB-Berdeak taldeko bi ordezkariak. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Leioako Udalaren arteko lankidetzahitzarmenaren proforma onestea **erabaki zuen**. Hori guztia udalerrian sortzen diren eta Aldundiari ematen zaizkion hiri hondakinak tratatzeko zerbitzurako, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenetan agertzen den bezala.



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EB-Berdeak-eko Daniel Herrera Torrecilla jaunak esandakoaren laburpena:

Hain zuzen ere, hitzarmenaren sistemak zentzuzkoagoa ematen du, moduren batean, gaiaren planifikazioa baita, baina denok dakigu zein den gure jarrera batzordeetan eta beste zenbait arlotan: hiri hondakinak erretzeko tratamenduaren kontrako jarrera. Hartutako jarrera hori dela-eta, aurka azaltzen gara, ez hitzarmen moduarengatik, baizik eta hondakinek izaten duten tratamenduarengatik.

5.- LEIOAKO UDALAREN ETA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN (UPV/EHU) ARTEAN SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENAREN PROFORMA, TOKIKO BIDEAREN TARTE BAT MANTENTZEKO ETA HORREN ARDURA HARTZEKO AZKEN HORREK, FORU ALDUNDIAK ESKUALDATU ONDOREN: Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko ekainaren 25eko 316. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko ekainaren 17an hartu zuen 116. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoen bidez, Udalaren osoko bilkurak 2000ko abenduaren 14an hartu zuen 6. erabakiaren bidez, Leioako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailari BI-2731 (Leioa-Unbe) foru errepideko 13+240 KPtik 14+300 KPra arteko tartearen titulartasuna eskualdatzeko eskatu ziola jakinarazi da; tarte hori Avanzada errepideko alboko bidearen eta Sarrienako errotondaren artean dago. Foru Aldundiak eskaera onetsi du. Horregatik, Erandioko mugaraino doan errepidearen gainerako zatiak foru titulartasunekoa izaten jarraituko du.

Instalazioak, fakultateak, zerbitzu osagarriak eta lotutako enpresak handitzeko obra garrantzitsuak burutzea aurreikusi duenez, UPV/EHUK Udalari adierazi dio IES Barandiaran Goikoa BHLren parean Mendibile auzoari lotzen zaion tokiko bidearekiko bideguruzearen eta Erandio udal mugartearekiko mugaren arteko tarte udal titulartasunekoa izatea nahi duela.

Aipatutako interesa ibilgailuen joan-etorrietako bide horren zortasun eta loturetarako udal araudiaren aplikazio eskusibotik ondorioztatzen diren arintasun eta koordinazio handiagoetan oinarritzen da. Kontuan hartu behar da foru errepideko tarte hori UPV/EHUren lurrek inguratzen dutela erabat.

Espedienteari erantsitako planoaren edukiaren arabera, argi eta garbi ikusi da ilogikoa izango litzatekeela Leioako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari aurreko atalean deskribatutako tartearen titulartasuna eskualdatzeko eskatzea eta ez Sarrienako errotondaren eta aurreko tartearen hasieraren artean dagoen tartearena, kasu horretan foru tarte bat egongo litzatekeelako tokiko bi bideren artean.

Horregatik, UPV/EHUK agertutako interesa betetzeko, Toki Administrazio honek titulartasuna eskualdatzeko espediente bideratu behar du, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, foru bideragarritasuna toki bideragarritasun bihurtzeko asmoz. Horrela, Sarrienako errotondaren eta udal mugarteko mugaren artean dagoen tarte osoa barne hartuko luke.

Leioako Udalak ez du eragozpenik aipatutako aldaketa eskatzeko, betiere UPV/EHUK Barandiaran Goikoa BHLren parean Mendibile auzoari lotzen zaion tokiko bidearekiko bidegurutzearen eta Erandio udal mugartearekiko mugaren arteko tartearen seinaleztapen, mantentze-lan eta horren erabileratik ondoriozta daitezkeen erantzukizunen



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

ardura hartzen badu bere gain. Sarrienako errotondaren eta aurreko tartearen hasieraren artean dagoen beste tartea udal erantzukizuneko izango da, bera arduratuko dela haren mantentze-lanez.

Logikoa denez eta zuhurtasun arrazoiak direla-eta, Leioako Udalak UPV/EHUK mantendu eta horretaz arduratu beharreko tartearen titulartasunaren eskualdaketaren eraginkortasuna hitzarmena benetan egitearen baldintzapean jarriko du. Ildo horri jarraiki, Toki Administrazio honek ez du egingo Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harrera-aktarik, agiri hori egin ezean.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak iritzi du, Udalaren osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Leioako Udalaren eta UPV/EHUren artean idatzitako lankidetzaren proforma onestea komeni dela, hori egiteko alkate-udalburua ahaldunduta.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki zuen** Leioako Udalaren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) artean sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren proforma onestea, tokiko bidearen tarte bat mantentzeko eta horren ardura hartzeko azken horrek, Foru Aldundiak eskualdatu ondoren, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

6.- LEIOAKO UDALAK BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI EGINDAKO ESKABIDEA, BI-2.731 FORU ERREPIDEAREN TARTE BATEN (LEIOA-UNBE) TITULARTASUNA ESKUALDATZEKO: Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko ekainaren 25eko 317. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko ekainaren 17an hartu zuen 117. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoen bidez, Udalaren osoko bilkurak 2000ko abenduaren 14an hartu zuen 6. erabakiaren bidez, Leioako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailari BI-2731 (Leioa-Unbe) foru errepideko 13+240 KPtik 14+300 KPra arteko tartearen titulartasuna eskualdatzeko eskatu ziola jakinarazi da; tarte hori Avanzada errepideko alboko bidearen eta Sarrienako errotondaren artean dago. Aldundiak eskaera onetsi du. Horregatik, Erandioko mugaraino doan errepidearen gainerako zatiak foru titulartasuneko izaten jarraituko du.

Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Arauaren 60. eta 61. artikuluetan ezarritakoaren arabera, aipatutako sarearen tarte batek, urbanizazioak gehitzearen ondorioz, hiri ezaugarriak dituen, komenigarritzat jotzen da horren titulartasuna udalei ematea, udalaren zein auzokoen jarduerari laguntzeko. Gauzak horrela, lagapenetik aurrera, udal arauak betetzeko eta errepide horietako lurralde guneei lotutako baimenak eskatzeko, beren udalera jo behar dute, udal autonomian bakarrik justifikatu eta garatu ahal diren jarduerak egiteko eskumena daukan administrazio bakarra den aldetik. Logikoa denez, lagapenak titulartasuna aldatzea eta hori mantendu behar izatea dakar.



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Beste aldetik, UPV/EHUK adierazi du Unibertsitatearen lurrek erabat inguratzen duten foru errepedeko tarte hori toki titulartasunekoa izatea nahi duela, mantentze-lanak eta ardura bere gain hartuta.

Horren ondorioz, eta espedienteari erantsitako planoaren arabera, Bizkaiko Errepideei buruzko Foru Arauaren 60. eta 61. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Leioako Udalak BI-2137 (Leioa-Unbe) foru errepedeko Sarrienako errotondaren eta udal mugaren arteko tartearen titulartasuna emateko eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

Adierazitako planoaren arabera, tarte hori bi zatitan banatzen da:

- Kolore urdina: Sarrienako errotondatik Barandiaran Goikoa BHIren parean Mendibile auzoari lotzen zaion tokiko bidearekiko bidegurutzeari pasatu bezain laster dagoen semafororaino (hori barne). Leioako Udalak bere gain hartuko ditu tarte horren mantentze-lanak eta ardura.
- Kolore marroia: Aurreko atalean deskribatutako amaieratik Erandio udal mugarteko mugaraino doan tarte. Tarte hori Leioako Udalaren titulartasunekoa eta erabilera publikokoa izan arren, UPV/EHUK mantendu eta horretaz arduratu beharko da.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako erabakiak hartzea komeni dela:

- Bizkaiko Foru Aldundiari eskatuko zaio BI-2137 foru errepedeko (Leioa-Unbe) Sarrienako errotondaren eta udalerrri mugaren arteko tartearen titulartasuna emateko.
- Espedienteari erantsitako planoko kolore marroiko tartearen titulartasuna eskualdatzeko eskaeraren eraginkortasuna Leioako Udalaren eta UPV/EHUren artean UPV/EHUK tarte hori mantendu eta horretaz arduratzeari buruz sinatu beharreko hitzarmena benetan egitearen baldintzapean jarriko da.
- Ildo horri jarraiki, Toki Administrazio honek ez du egingo Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harrera-aktarik, aurreko atalean adierazitako hitzarmena egin ezean.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki zuen** Bizkaiko Foru Aldundiari BI-2.731 foru errepedearen tarte baten (Leioa-Unbe) titulartasuna eskualdatzeko eskaera onestea, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenetan agertzen den bezala.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

7.- **ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK 2008-05-24tik 2008-06-20ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedienteen agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopia azter ditzaten.

El Ayuntamiento Pleno quedó enterado y conforme.

8.- PRESAZKO MOZIOAK:

1.- ALDERDI POPULARRAK AURKEZTUTAKO MOZIOA:

Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, Santurtziko Udaleko Alderdi Popularra udal taldeko bozeramaileak, honako mozioa aurkeztu du Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 97/3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkuraren bilera honetan eztabaidatzeko:

MOZIOA

Espainiako Konstituzioaren 62. artikulua ezarritakoaren arabera, Erregeari dagokio *“Konstituzioan aurreikusitako kasuetan erreferendumerak deitzea”*. 92. artikulua arabera, *“Erreferendumerak Erregeak deituko ditu, Gobernuko Presidentearen proposamenaren bidez, baina, horretarako, aurretik Diputatuko Kongresuak baimena eman behar du”*. Azkenik, 149.32. artikuluan Estatuaren eskumen esklusibo gisa honakoa agertzen da: *“Erreferendum bidez herri-kontsulta egiteko deialdirako baimena”*.

Bestalde, alor juridikoari baino ez dagokiola, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 71. artikulua, herri-kontsulta dela-eta, honakoa dio: *“estatuko legediaren arabera”*, eta *“Alkateak”* izango dira deialdia egiteko arduradunak, *“Lehenbizi, Nazioko Gobernuaren baimena”* izan behar du eta *“udalaren eta tokiko eskumen”*eko gaietara mugatu behar du.

Hori dela eta, zalantzarik gabe, ikuspegi juridikotik, Lehendakariaren proposamena, eman nahi dion izendapena kontuan izan gabe (erreferenduma edo kontsulta), ez dago legearen barruan eta, beraz, legeriak Euskal Autonomia Erkidegoan Estatuko ordezkari garrantzitsuena denari ematen dizkion eskumenak gainditzen ditu.

Baina, egindako ohar juridikoen gain, nahitaezkoa da zehaztasun politiko jakinak egitea, Lehendakariak proposatutako erakundearen erroren garrantzia dela-eta. Aurkeztutako ekimenak Zuzenbide Estatua probatu nahi du legekoa ez den deialdiaren bidez, euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeke jatorrizko eskubidea duela azaltzeko argudio faltsuaren bidez arrazoituz eta gure gizartearen aniztasuna alboratuz. Ibarretxek ezin du alde batera utzi hau osotasunaren zati dela eta ezin dio bere kontura uko egin, gainera, modu interesatuan ezkutatu euskal herritarrok adierazten ari garela hautestontzietan sistema demokratikoa ezarri zenetik.

Proposamena arduragabetasun politikoaren adierazpena eta ekitaldia da, euskal herritarrak zaldien oinetan eta amilburuan jartzen baititu, batzarra bistako legerik ezara bultzaraziz. Ekimenak banaketan sakontzen du eta Lehendakariak praktikatuak bakarrikzketaren ezarpenaren adierazpena dakar.

Karta Magnaren eta Gernikako Estatuaren indarraldi osoa aldarrikatzen dugu, autogobernuaren kotarik altuenak eman dituen oinarriko erreferentziako arau gisa. Horiek elkarbizitzaren oinarriko zutabe eta Euskal Herriko garapeneren eta modernizazioaren tresna garrantzitsuena izan dira. Indarrean dagoen Antolamendu Juridikoaren kontserbazioak, Lehendakariak abiarazitako erakundearen erasoaren aurrean, erantzun lasaia,



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

irmoa eta erabatekoa behar du Nazioko Gobernuaren aldetik, horretarako, Zuzenbide Estatuak ematen dizkion tresnak erabili beharko ditu.

Bestalde, Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Legeak udalei funtsezko eginkizuna ematen die hauteskundeetan. Honakoa dio: “*Udaletako idazkariak Eremuko Hauteskunde Batzordeetako ordezkariak dira eta horien ikuskapen zorrotzaren pean lan egiten dute*”; “*Udalek Probintziako eta Tokiko Hauteskunde Batzordeen eskura jarriko dituzte bitarteko pertsonalak eta materialak, beren ekintzen jarduerarako*”; “*hauteskunde-mahaiak edo beren ekintza sortzea, Hauteskunde-eroldaren bulegoko laguntzaileak*”. Hori dela eta, nahitaezkoa da gure Udalean Lehendakariaren legez kanpokoa den erreferendumaren deialdia eta horretarako laguntzak ukatzeko erabakia hartzea,

ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIA AURKEZTU DIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DEZAN:

LEHENENGOA: Leioako Udalaren osoko bilkurak adierazi nahi du Konstituzioa eta Gernikako Estatutua gure eskubideak eta askatasuna bermatzen duten legezko arauetara osatuta daudela, eta aniztasunaren, garapenaren eta euskal autogobernuaren erakuslerik hoberenak direla.

BIGARRENA: Leioako Udalaren osoko bilkurak Ibarretxe Lehendakariari eskatu nahi dio erreferendumen deialdiari uko egiteko, ez baitu horretarako eskumenik, ezta gaikuntza juridikorik ere eta, halaber, indarrean dagoen legezketasuna zorrotz bete dezala. Era berean, eskatu nahi dio bere jarduera politikoko lehentasunak terrorismoaren kontrako borroka eta ETaren suntsipena izan daitezela, baita herritar guztientzako askatasuna berreskuratzea ere.

HIRUGARRENA: Leioako Udalaren osoko bilkurak Nazioko Gobernuari eskatu nahi dio Zuzenbide Estatuak ematen dizkion mekanismoak abiaraz ditzan, legez kanpokoa den erreferenduma egitea galarazteko.

LAUGARRENA: Leioako Udalaren osoko bilkurak erabaki du legez kanpokoa den hauteskunde prozesuan baliabide materialekin zein udal baliabide administratiboekin lan ez egitea.

EZTABAIDA:

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Presazko mozioa dago eta ohiko irizpidea kontuan hartuta, premiaren arrazoiak azalduko da eta, gero, hori bozkatu da eta dagozkion azalpenak eman dira.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Uste dugu premia justifikatuta dagoela, izan ere, bihar (ostirala), ekainaren 27an, Eusko Legebiltzarrean eztabaidatuko den gaia da. Beraz, Udal honek gai horren inguruan, alegia, Ibarretxe Lehendakariaren kontsultaren gaiaren inguruan, jarrera bat har dezala eskatzen dugu.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Guk gai honen inguruan hartutako jarrera ezagun da guztiontzat, baina eztabaida hori ez dela esan duzunez, hau da, kontua premia baloratzea denez, gure jarrera premiazko mozioak lantzeko baimenaren aldekoa da.



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Mozioren premia dela-eta, gure ustez, baten bat premiazkoa ez bada, horixe da, ez baitago herri honetan herritarrik Ibarretzek kontsulta hau proposatu nahi duela ez dakienik eta hori duela denbora luzea baitakite.

Atzo, gainera, Batzordeko bilera izan genuen eta ez zenuten gaia proposatu. Zernolako aldaketa egon da atzotik gaurko egunera?

Azken batean, duela urtebete jakin da kontsulta egongo dela, beraz, ez dugu uste arrazoirik dagoenik gaur premiazko mozio gisa aurkez dadin eta kontrako botoa emango dugu.

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

PPko udal taldeak esandakoaren inguruan badirudi udalen eskuetan erabakiren bat dagoela eta horiek proposatutako gaiari buruzko beren jarrera agertu behar dutela. Hori egin ahalko da bihar parlamentuaren tramitea amaitzen denean.

Edozelan ere, atzo egindako Barne Araubideko Informazio Batzordean gai hau aztertzeko asmoa ager zenezaketen, baina ez zenuten egin eta aukera politikoen gaiak baloratu zenituzten, beraz, guk, zentzu honetan, beste balorazio bat egin dezakegu. Barne Araubideko Informazio Batzordearen gaia proposatuko balitz, beharbada, hurrengo osoko bilkuran azter liteke, nahiz eta horren inguruko iritzirik ez dudan, edozein kasutan ere, eztabaidarik egon behar bada, aipatutako Batzordean egin behar ote den.

Alkate jaunak premiari buruzko bozketa egiteko agindu du.

PRESAZKO MOZIOAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioren premiari buruzko bozketa egin da.

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **aldeko bederatzi boto**, PSE-EEko sei zinegotzianak eta PPko hiru zinegotzianak; **kontrako hamaika boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziana. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du mozioren premia **baztertzea**, berau eztabaidatu eta bozkatu behar ez dela erabakiz.

9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

1. - Eskaera

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Lehenengo eta behin, eskaera orokor bat egingo dugu, uste baitugu Leioan garrantzitsuak diren eta oposizioak ezagutzen ez dituen gaiak daudela edo komunikabideen bidez izan dute horien berri, eta, barneko komunikazioaren bidez informazioa osoagoa da.

Horrela, bada, tranbiaren trazaduraren proiektua dela-eta, Eusko Jaurlaritzak onetsi duela jakin dugu komunikabideen bidez eta ez Udalak horren berri eman digulako. Hori Leioako herriarentzat gai garrantzitsua dela uste dugu.



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Mendibileko pasabidea dela-eta, badirudi gaitu egin dela horren berririk eman gabe, eta guk horren gaineko geure ikuspuntua dugu, beraz, hori abiarazteari buruzko informazioaren berri eman behar izan da.

Web orriari dagokionez, hilabete inguru darama ezgaitua eta hori eguneratzeari buruzko informaziorik ere ez zaie eman ez oposizioari, ezta herritarrei ere.

Hori guztia laburbilduz, aurretik azaldutako hiru gai horiek adibide gisa baino ez dira proposatu, horrela, adierazi nahi dugu udalerrarentzat garrantzitsuak diren gaien berri eman behar zaiela herritarrei eta udal oposizioari, erakundeen bideen bitartez. Horrela, gainera, modu eraginkorrean egin ahalko dugu lan Udalean. Hori dela eta, eskaera honakoa da: komunikazio hobea eskaini behar zaie, bai herritarrei, bai oposizioko taldeei.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Lehenik eta behin, esan nahi dugu kritika hori onartzen dugula, baina proposatu dituzun gaiek tratamendu berezia behar dute.

Tranbia dela-eta, gaur goizean eman digute Udaleko teknikariek horren berri, eta prentsak ere Eusko Jaurlaritzak erabaki duenaren berri izan dezake, baina guk ez dugu izan aztertzeko aukerarik eta aurki aztertuko dugu Batzordean. Hala ere, aurreratu nahi dugu badirudiela aldaketa txikia dagoela hasierako aurreikuspenetan.

Mendibileko pasabidea dela-eta, egia da jendaurrean jarri dela, ekitaldi ofizialik egin gabe, atzerapen nabarmena egon baitzen eta, ondorioz, eraginkortasunari lehentasuna eman zitzaion. Dena den, argazki batzuk baino ez ziren egin udal aldizkarirako.

Web orrialdea dela-eta, badakizue zein egoeratan aurkitzen den. Egia da, hein batean, arrazoi duzue.

2. - Eskaera

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Xabier Olabarrietak, dagoeneko, azaldutakoa sakontzeko, Alkatea bera ez balitz izan Bozeramaileen Batzordean batzeko ekimena proposatu izan zuena, komunikazioaren gaia ez litzateke hain larria izango eta, horrela, Etxez Etxeko Laguntzari buruzko eztabaidaren gaineko informazioaren berri badirudi komunikabideek eman beharko digutela.

Bestalde, atzo bi mozio aurkeztu genituen Barne Araubideko Batzordean. Aurretiaz Batzordean eztabaidatzeari ondo baderitzogu ere, Osoko Bilkuran azter daitezen ere nahi genuke eta, horrela, eskuinaldeko ospitaleari buruzko proposamena dela-eta, osoko bilkura honetan aztertzea proposatu zen eta ez da eskaera bete.

Pasa den ekainaren 1eko uholdeei buruz proposatu genuena dela-eta, Barne Araubide Batzordetik susmo garratzak baino ez genituen geureganatu, izan ere, guk elkarlanean aritzeko dugun gogoia -nahiz eta funtzionarioei, auzokideei eta udal gobernuko taldeko politikariei zorionak eman-, azken horiei, udal gobernuko taldeko politikariei, emandako bakardadea leporatu ziguten, eta ez dut uste hori gure taldeak onartu beharreko kritika denik; izan ere, guk nahi genuena zen aho bateko erabakia hartu Udondo eta Gobela ubideen garbitasunari buruz, jarduteko protokolo hierarkizatua lortu nahi genuen. Hala ere, uste dugu zenbait datu eskuratu zizkigutela, baina hainbat arlotan informazio gehiago izan behar genukeela eskura.

Azkenik, uste dugu benetan bakardadean dagoena oposizioa dela, gobernu taldeak eskaintzen dion babes urria dela-eta, gure proposamenak entzuteko orduan.



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Hiru gairi buruz aritu zara.

Etkez Etxeko Laguntza dela-eta, osoko bilkura honetan langileek egoeraren berri emango dute. Gizarte Ekintzako Batzordean aztertzeko zalantza izan dut edo Bozeramaileen Batzorde bat deitzeko, baina, azkenik, kaltetuen beren azalpena edozein dela ere, uste dut gaiari buruzko nahikoa informazio izango dugula. Kasu horretan, ziurrenik, aparteko osoko bilkura deitu beharko denez, Pinosoloko Sozietate Publikoarengatik, gaia azter liteke.

Eskuinaldeko ospitalea dela-eta, guztiek berenganatu zuten PPko bozeramailearen proposamena eta ospitale hori egiteko Gobernuaren konpromisoa, jadanik, badagoela kontuan hartuta, uste izan dut nahikoa izango zela Eusko Jaurlaritzari egoera jakiteko idazki bat bidaltzea.

Ekainaren 1eko uholdeen osteko udal jarduketari buruzko mozioak benetan mindu nau, izan ere, gertatu eta hiru edo lau egunetara mozioa erregistratzea gaia aztertzeko osoko bilkuraren eske, ez dut uste zuzena denik, zeren eta, ardura izanez gero, uste dut jarrerak beste bat izan beharko lukeela. Hau da, egunean bertan galde liteke, nahiz eta egitera behartuta ez egon, eta laguntza eskain daiteke, eta, horrela, uste dut ez dela beharrezkoa osoko bilkuretako eztabaiden oihartzuna bilatzea. Hori dela eta, berriro errepikatu zuen asko mindu zuela mozio hori aurkezteak, bai pertsonalki, bai politikoki, bai eta udalbatzari dagokionez ere.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak eta **EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

(Elkarrizketa izan zuten udal ordezkari horiek aurkeztutako mozioak zuen zentzuaren inguruan: aukera, erabilitako bideak eta bakoitzaren iritzia).

3. - Eskaera

PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak esandakoaren laburpena:

Jakinarazi nahi diot osoko bilkurari oso pozik nagoela Leioako armari berria onetsi baita eta, batzuetan Alkatea zorrotz epaitzen bada ere, kasu honetan zorionak eman nahi dizkiot duela urtebeteko eskaerak kontuan izan baitzituen eta, egun, Leioak harro esan dezake heraldikako armarrria duela. Armarrriak Leioa edo Lejona abizena –berdin du bietatik zein, antzinako gaztelaniaz bietara baitzen- agertzen da, baita funtsezko piezak ziren dorreak, eta ez da gaztelurik agertzen.

Interesgarria izango litzateke paperetan txertatzen hastea, horrela, gazteek udalerriko historia bertan ikus dezakete islatuta. Azken batean, oso pozik nagoela adierazi nahi dut, udal talde guztiek armari berriari babesak eman baitzioten, hori dela eta, zorionak eman beharko genizkioke elkarri.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Aipamen gisa, esan nahi dut harritu nauela banderak proposatzeko orduan, eskolatuei hartz latza duenak gehiago atsegin ez izanak.

4. - Eskaera

PSE-Eeko Luis M^a Pérez Pérez jaunak esandakoaren laburpena:

Jaiak amaitu dira eta balorazioa egitearren, esan nahi dut uste dudala oso jarduera egokiak egon zirela, baina uste dugu guneak dibertsifikatu behar direla. Horrela,



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

bada, Ikeaberri plazan, eszenatoki bi daude 40 metro baino gutxiagoko aldearekin beren artean eta etxebizitzak, kasuren batean, 4 metro baino gutxiagoko tartearekin. Hori dela eta, kutsadura akustikoa altuegia da, nahiz eta jaiak izan; izan ere, leihoak ere dardarazten baititu zaratak eta, gainera, 200 metroko erradioan txosnak daude; halaber, kanpoko bozgorailuak dituzten hamabi taberna daude. Horrek guztiak hainbat auzokide kaltetzen ditu.

Herriaren dentsitatea txosna inguruan Bilboko jaietako kaltetuenak baino handiagoa da eta kontuan izan behar da auzoan jende nagusia bizi dela, bai eta gaixoak ere. Hori guztia dela-eta, uste dut jaietako gunea zabaldu egin behar dela eta hori eskatu nahi diot udal gobernuari.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Galdera izan baldin bada, galdera-marka falta izan zaio eta eskaera izan bada, nire ustez, eskaera izatetik haratago dago. Hori Kultura edo Jai Batzordean aztertze gaia da, horiek baitira jaietako eremuak zehazten dituztenak eta jakina da bi batzorde horiek edozein planteamendu eta proposamen konstruktibo egiteko daudela, bai jaiak baldintzarik gabe gozatzen dituztenen onurarako, bai eta zarata handia dagoen tokian daudenen onurarako ere. Eskaeraren helburua argi daukat, baina uste dut proposamen batean bideratu behar dela Batzordean eta urtebete dago hori egiteko.

PSE-EEko Luis M^a Pérez Pérez jaunak esandakoaren laburpena:

Argitu nahi dut galdera bat egin nuela Hirigintzako Batzordean, hori zela tokirik egokiena uste izan bainuen, eta jaso nuen erantzuna izan zen, azken batean, konformatu egin behar nintzela eta ez dut uste hori erantzun egokia denik.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Argitu nahi dut osoko bilkuraren atal hau galdera eta eskaeren atala dela eta xehetasun horietara mugatu behar dela, apelazio pertsonaletara jo gabe. Galderak edo eskaerak zuzenean egin behar zaizkio Alkateari, eta horrek berehala edo handik denbora batera erantzun ditzake. Zurea haratago heldu da eta uste dut Txus Bilbaok erantzuteko eskubidea duela.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Ez dakit zer esan duzun Batzordearen erantzunari buruz. Uste dut zenbait gai aztertzen aritu ginela eta, bat-batean, jaietako eremuaren erreferentzia eta, horri dagokionez, zarata aipatu zenuen. Jarraian, nik galdetu nizun zeure jarrera ote zen ala taldearena. Jaietako eremuari buruz Kultura Batzordean hitz egin behar da eta, bestalde, esamesa zeurea zela uste dut eta ez taldearen jarreraren agerpena eta, gainera, azalpen hori inguruko auzokide gisa egin zenuela ondorioztatzen nuen. Nik esan nizun kexa daudela jaietako zarata dela eta egon zen gai honen inguruan jasanberak izan behar dugula esan zuenik.

Nire irizpidea izan zen beste Batzorde batean aztertu beharreko puntua ote zen proposatzen zen, besterik ez; beraz, ez dut uste erantzun okerrik eman nizunik. Uste dut entzuten jakin behar dela, bai eta kritikak onartzen ere.



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EB-Berdeak taldeko Daniel Herrera Torrecilla jaunak esandakoaren laburpena:

Aprobetxatu nahi dut bertan gaudela jakinarazteko bertaratuko naizen azken osoko bilkura izango dela. Esan beharra daukat gogo eta ilusio handiz aritu naizela, baina ez dudala astirik udal gaietan behar den bezala jarduteko. Askok pozten nau zuok ezagutu izanak, eta espero dut zuok ikusten jarraitu ahal izatea. Udalerrian gauzek egoki egin dezaten aurrera nahi dut eta guztion artean hobetzen jarraitzea. Eskerrik asko.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Egia esan, zer esan jakin gabe geratu gara berri horrekin. Askok sentitzen dut joatea, nahiz eta bakoitzak jakin behar duen zein lehentasun duen bere bizitza profesionalean eta pertsonalean eta onena opa dizut, bai batan, bai bestean. Pozten nau zu ezagutu izanak, gure artean politika dela-eta egon diren desberdintasunak gorabehera, eta oso onuragarria izan da zinegotzi lanak zurekin egin izana.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Dani, umetatik ezagutzen dugu elkar eta onena opa nahi dizut, beti izan zara pertsona zintzoa eta orain, jada, egoera horri buelta emateko berandu da. Jarrai ezazu horrela eta elkar ikusten jarraituko dugu. Eskerrik asko udalerriaren alde jarduteagatik eta lan egiteagatik.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Harrituta nago Alderdi Sozialistaren bozeramaileak bezainbeste urte dituzulako, horren berririk ez nuen eta. Atsegin handiz aritu gara zurekin eta gauza politikak esan beharrean, esaldi bat esango dizut, amai dezazun: "Uste dugu pertsona zintzoa zarela ..., baina zure jarrera aldatu beharra duzu".

EAJ-PNVko Jon Peli Lazkano Alzaga jaunak esandakoaren laburpena:

Ezustekoa izan da guztiontzat, baina argi utzi nahi dut elkarrekin eman dugun denbora laburrean, pozarren egin dugula lan elkarrekin eta hainbat gauza egin dugula eta, jakina, zure hutsunea sumatuko dugu.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Ni izan naiz Daniren hitzen aztarrenik gehien izan dudana, izan ere, duela ordu batzuk jakin dut utziko duela. Arrazoiak hain dira benetako bizitzakoak –eta ez batzuetan guk geuk sortzen dugun gezurretako bizitzakoak, komunikabideetakoak, etab.-, ezen ulertu ez ezik, iritzi berekoak izatera eta mirestera ere iristen garen. Izan ere, norberak gogoko duena alde batera uzten da gainera datorkion beste zerbaitengatik, eta zuk gainera datorkizunaren alde egitea erabaki duzu eta horrek ohoratzen zaitu gizaki, senar eta aita zaren aldetik.

Nik, Alfonsok bezala, pertsona zintzoa zarela esan nahi dut eta pasadizo bat kontatu nahi nuke: "pasa den udal hauteskundeetan komunikabideetako eztabaiden ondoren, kontuan hartuta berriak Dani eta EAko zinegotziak zirela, eztabaida horien ondoren, jaso nuen lehenengo deia oso maitagarria den pertsona batena izan zen eta, lehenbizi, honakoa esan zidan: "Dani delako hori gizon zintzoa da".

Uste dut gozamen handikoa izan dela denbora honetan zurekin egotea eta kidesuna eta laguntasuna eratzeko balio izan digu eta, gainera, zu hurbil izanda, partaidetzari, elkarrizketari eta bateratzeari buruz ezer ez ikastea, artaburua delako seinale



LEIOA UDALETXEA
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eta nik eskarmentu handia hartu dut, ikasi eta barneratu egin dut, batik bat, partaidetzari dagokionez, zenbait ideia ere aldaraziz. Berriro ere esan nahi dut gozamen handikoa izan dela. Eskerrik asko.

Eta 20:00ak direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,